

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2026an kultur-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia onartzea

BDNS (Identif.): 907785.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/conocatoria/907785>).

ZINEGOTZI ORDEZKARIAREN PROPOSAMENA, ALKATE-UDALBURUAREN DEKRETU BIDEZ EBAZTEKO

Alkate-udalburuak 2023ko ekainaren 30ean emandako 1178 Dekretuaren bidez, eskuordetza eman die arloetako zinegotziei. Horiek horrela, zinegotzi ordezkariak jarraian ageri den ebazpena hartzea proposatzen dio alkate-udalburuari:

ZERBITZU UNITATEA: Kultura.

Esp.: 2026/2346.

Gaia: 2026ean kultur-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia onartzea.

Laudio Udaleko Nortasun Arloaren helburuetako bat da elkarte edo erakunde publiko edo pribatuei laguntzea, hain zuzen ere, kultur-jarduerak egitea, programatzea eta egitea helburu nagusi dutenei.

Laguntza hauekin sustatu eta bultzatu nahi da udalerriko gizarte- eta kultur-eragileek kultur-jarduerak gauzatu ahal izatea, elkarte horiek egiten dituzten egitasmoetan lankidetzan arituz, betiere, udal-aurrekontuek dituzten kontsignazioen ondoriozko mugen barruan.

Kontuan hartuta dirulaguntzen udal-ordenantza.

Ikusirik Kulturaren Zerbitzu Unitateak 2026. urterako egin duen dirulaguntzen deialdia, kultur-jarduerei dagokiena.

Ikusirik Nortasun Arloko arduradunak 2026ko maiatzaren 12an egindako memoria-txostena.

Ikusirik 2026ko maiatzaren 20an egindako Idazkaritzaren txostena.

Ikusirik 2026ko maiatzaren 21an egindako Kontu-hartzailetzaren txostena. (RC 2026.2-2092).

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 21. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, alkate-udalburuak hau

EBATZI DU

LEHENENGOA: Alkate-udalburuaren esku uztea espediente hau ebaztea.

Erabaki honen arrazoia da deialdi honetan jasotako dirulaguntzak premiaz izapidetu eta eman behar direla.

BIGARRENA. Onartzea 2026an kultur-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia. Dirulaguntzak norgehiagoka-araubidearen arabera emango dira.

HIRUGARRENA. Onartzea deialdi honetarako bideratutako 48.000,00 euroko gastua. Deialdi honen bitartez (2026. urtea) emandako dirulaguntzen kopuru osoak ezin izango du inoiz ere gainditu indarrean dagoen udal-aurrekontuan aurreikusitako 48.000,00 euroko zenbatekoa.

Zenbateko hori lote hauetan banatuko da:

1. lotea: 2026ean udalerrian kultur jarduerak antolatzeko dirulaguntza (41.250,00 euro).
2. lotea: Udalerriko kultura-elkarteek kultura-ekitaldietan parte hartzeko (lehiaketak, txapelketak, bisita kulturalak, etab.), 2026ean Laudiotik 40 kilometrora baino gehiagora egin dituzten edo egingo dituzten joan-etorrietarako dirulaguntza (5.100,00 euro).
3. lotea: 2026ean udalerrirako interes kulturala duten liburuak, diskoak, bideoklipak, film laburrak edo filmak argitaratzeko dirulaguntza (1.650,00 euro).

LAUGARRENA. Deialdi honen gastua 0403 3341 48110 "Subv. a Asociaciones Culturales" aplikazioaren kontura egotziko da, Audio Udalak 2026rako duen aurrekontuaren barruan.

BOSGARRENA. Eskabideak hogeiei egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Pertsona juridikoek egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dituzte eskabideak, eskabide-orri normalizatua beteta; pertsona fisikoek, aldiz, egoitza elektronikoaren bidez edo Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduetan.

SEIGARRENA. Deialdi hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) argitaratuko da. Aurrekoaz gain, udaletxeko iragarki-taulan eta ohiko udal-komunikabideetan ere argitaratuko da.

ZAZPIGARRENA. Ebazpen honen berri ematea egingo den Gobernu Batzordean.

Laudio, 2026ko maiatzaren 15a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ